



## **ZIKLOMOTORREN DERRIGORREZKO AZTERKETA TEKNIKOA**

Ibilgailuen azterketa tekniko arautzen duen urriaren 14ko 2042/1994 Errege Dekretuak (Ekainaren 9ko 711/2006 Errege Dekretuak aldatu du Dekretu hori) agintzen duenez, 2007ko martxoaren 21etik aurrera nahitaezkoa da ziklomotorrei aldizkako azterketa tekniko egitea.

Aurrekoa betez, 2007ko martxoaren 7an argitaratu zen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko otsailaren 13ko Agindua, eta hor ezartzen zenez Euskadin ibilgailu horiek 2007ko apirilaren 1etik aurrera hasi behar zuten nahitaezko azterketa hori pasatzen.

Nahitaezko azterketa tekniko hau, lehen matrikulaziotik 3 urte betetako ziklomotorrek pasa behar dute.

Herritarrei gauza errazteko, IAT / ITV estazio mugikorra etorriko da berriro ere Azpeitira, herrian bertan azterketa hori pasa ahal izateko. Azterketa hau pasatzea derrigorrezkoa da eta orain herrian pasatzen ez dutenek, Azpeititik kanpo dauden IAT / ITVko estazio finko batera joan beharko dute..

Azterketak leku eta egun honetan pasako dira:

- **Urola kalea 6an kokatutako Udal Biltegian.**
- **Eguna: 2009ko maiatzaren 8an, goizeko 9,00tatik eguerdiko 14,00tara.**

**OHARRA: azterketa pasa ahal izateko ordua hartu behar da telefono honetara deituaz**

**943-760490**